

2026ko UDAKO KANPAINA

ZOZKETA, PLAZA ESLEIPENA ETA MATRIKULA

- Eskaera eskaintza baino handiagoa den jarduera eta taldeetan, **plazak zozketatuko dira**, eta honako ordena honetan esleituko dira: **lehenengo postuan erroldatutako pertsonak** (gehienez bi txanda jarduera bakoitzeko), **bigarren postuan erroldatuta ez dauden baina abonatuta dauden pertsonak** (gehienez bi txanda jarduera bakoitzeko) eta **hirugarren postuan interesa duen edozein pertsona** (erroldatu gabea eta abonatu gabea, gehienez bi txanda jarduera bakoitzeko).
- Izen-emate bakoitzeko, pertsonak zenbaki/kode bat jasoko du posta elektronikoz bidez, eta gorde egin beharko du, gero argitaratutako zerrendetan plaza lortu duen ala ez ikusteko.
- **Ekainaren 10an, behin-behineko zerrendak** (onartuena eta itzarote-zerrenda) argitaratuko dira, bai Aranguren Ibarreko Udalaren webgunean, bai kirol-instalazioetako sarrera-taulan. Egun horretan bertan, **onartuek Kirol Zerbitzuaren mezu elektronikoz bat jasoko dute**, matrikulatzeko eta ordaintzeko prozesuaren berri emateko. Garrantzitsua da egun horietan posta elektronikoz sarrerako ontziari eta, badaezpada, “zabor-posta” edo “spam”-ari adi egotea.
- Argitaratueta posta elektronikoz jakinarazten denetik, 4 egun egongo dira (ekainaren 14era arte, igandea, egun hori barne) plaza(k) **baieztatzeko, web-formularioaren bidez**.
- **Ekainaren 16n**, asteartean, posta elektronikoz jakinaraziko zaie **behin betiko plazen** berri, ordainketak egiaztatu ondoren, eta hutsik dauden plazetan itzarote-zerrendako pertsonen deitzen hasiko dira.
- **Ekainaren 16an**, asteartean, posta elektronikoz jakinaraziko zaie ordainketa/kobrantez eta **behin betiko plazen** buruzko informazioa, baieztapenak egiaztatu ondoren, eta plaza hutsetan dauden itzarote-zerrendetako pertsonen deitzen hasiko dira.
- Jarduera-kanpaina hasi ondoren (ekainaren 22a, asteartea), **EZ da onartuko itzulketarik edo prezio-baliogabetzerik. Jarduera eteten bada bakarrik itzuliko da inskripzioaren zenbatekoa.**

OHAR INTERESGARRIAK

- Jarduera horietan parte hartzea borondatezkoa da. Parte-hartzaile bakoitzak bere aseguruaren bidez estaliko ditu jarduerak dirauen bitartean gerta daitezkeen istripu edo lesioak, Udalak ez du bere gain hartuko horrelakorik sortzen duen gasturik.
- JARDUERA EDOTA TXANDEN GEHIENEN KOPURUA PERTSONAKO: Jarduera guztietan izena emateko lehen epe bat egongo da erroldatutako pertsonentzat, bakoitzak gehienez bi txandatan eman ahal izango du izena jarduera bakoitzeko. Ondoren, beste egun bat egongo da interesa duen edonori izena emateko aukera eskaintzeko, eta gehienez bi txanda hautatu ahalko ditu jarduera bakoitzeko.
- Jardueraren batean plaza lortzen duten abonatu **gabeko pertsonen** KIROLARI TXARTELA eskatu beharko dute gure web orriko galdetegia beteta: <https://www.aranguren.es/eu/kiroldegiko-jardueretan-parte-hartzen-dutenentzako-laguntzaileentzako-eta-bazkide-ez-diren-kirolarientzako-informazioa/>. Era berean, egun horietan haurrekin batera jarduerara joaten den pertsonak ere txartel hori eskatu beharko du (gehienez laguntzaile txartel bat).

GARRANTZITSUA: abuztuaren erdialdean, 2026-2027 ikasturterako Udal Kirol Programaren publizitatea egingo da hainbat hedabideren bidez. Programa horren izen-emateak irailaren hasieran egingo dira.